

¡ALA EZPANU ARTZEN!

AMERIKETAN zuben osabak, bigaldu ziyon bere illoba Mañubeli eskutitz bat, bere gana juateko esaten ziyona; eta-baita-re ondo izango zala aitortzen zubena. Nola ez, ¡aberatz purrukutuba! izan biar zuben Ameriketa-ko osabak eta.

Nik uste nuben, aberatz purrukutuba baño, aberatz purrukatu gabia, aberatzagua zala, baño ez du ala izan biar; ez dirudi biñipin gure baserritarren itz egiteko tankerak.

Makiñabat alperrikako itz eta berriketa egin ondorian, erabaki zuten echekuak, Mañubel bigaltzia osaba gana, eta an joan zan Burdeos-a bere aita Diyo-kin.

Ez ziyoten Diyo zerbait ziyolako esaten, bada ez zan asko bezelako itz-jariyua. Diyo-k ez diyo ezer, esan oi zuten ausuetakuak. Deitzen zitzayon Diyo, nolabait esatiagatiak pontian jarritako izen..... Diego.

Malko batzubek isuri ziran Diyo-ren begietatik, azkeneko besarkada semeari eman ziyonian; eta ontziya alde egiten asteakoan, biyotza lertzeko zoriyan, patrikera-tik atera zuben *pañuelua* azken-agurra egiteko asmuan.

Nola gizarajua samintasunez josiya zegon, eta zer egiten zuben ez zekiyena, *pañuelua* ateratziakin bat, erori zitzaizkan patrikeratik : pipa, tosa eta chanpon batzubek, faltsua ayetatik bat.

Bere larriyan asi zan jasotzen eroritako gauzak, eta lenengo golpian arrapatu zuben chanpon..... faltsua. Bestiak ez zituben ain erres topatu. Noizbait ere jaso zituben eroritako gauza danak..... eta puska bat geyago. Pipa puska batian erori zan eta bitan alchatu.

Orduban agur egin nai zuben, bañan alperrik; ez zan ageri ontsiyaren ichurik ere. Eta buruba makurturik, begiyak malkoz eztaliyak,

biyotza samintasan garratzak estutuba, an joan zan gizarajoa burni bideko *estaziyora*, eta artu zuben eche aldera biurtzeko chartela.

¡Ango zalaparta izugarriya! alde danetan trenak, emen oju, an karrazi, tronpeta batetik, chistuba bestetik, zoratzeko zoriyan jarri zan gure Diyo, ezin asmatuik nun buruba sartu echera juateko.

Noizbait ere prantzez aundi batek eldu ziyon beso batetik, eta antzeraman biar zan lekura. Eta zeramala prantzez aundi arrek, ara non ikusten duben beste aldian, tren baten oñetan: gazteri pilla bat, saku alako zuri aundi batzubekin gorputza estaliya eta burban boina gorriyak zituztela.

¡Eta euskeraz itz egiten zuten!

Diyo-k euskera aditu zubenian, laja prantzez aundi ura, eta arrek egiten zizkan ojubai kasorik egin gabe, salto batian joan zan gazte ayen tar-



GELDI ALDI BAT

la? !A, kaikuba!» Euskaldun egiazkuak eta donostiar bene-benetakuak ziran Diyo-k arkitu zituben lagun berriyak. Beriala adiskide egin ziran; bizi guziyan aldarrekin ibilli balira bezela, izketan asi ordurako jarri ziran. An etzan neria ta zuria: dana zan danena, ama baten semien artian bezela. Eta egiazko Jose-Mari-tarren antzera, bazan anchen umore ona, eta jostaketa eta parragarrikeria ugari. Diyo oso choratu zuten danen artian, eta ez zan konturatsen ez nora zijuan, ez nondik eta ez nola.

Ontan gazte ayek, asi ziran beren burubak antolatzen, atera zituzten saku zuri ayek, apaindu ziran, bildu zituzten pardelak; eta arriturik, esan ziyoten Diyo-k.

—¿Irichi al gera?

—Laſter..... iya, iya.

tera. Arren zai bazeuden bezela, Diyo alderaztiakin bat, sartu ziran kochietan gazte ayek, eta baita gure baserriarra-re chimista baño azkarrago. Trena asi zan ibiltzen eta oraindik ere karraſika ari zan prantzez aundi ura; eta Diyo-k oju egin ziyon leyotik:

—«¿Zer uste ukan bada, euskaldunak arkitu eta, prantzezakin juango nitza-


—¿Ez aldegu bada tren batetik bestera juan biar? Etortzerakuan ala egin nuben nik.

—Orain ez ordia. Ez dakizu bada au tren *ezpeziala* dala.

¡A!, esan zuben Diyo-k, etd esaten asi ezkeru ez det uste ezer guchiyago esan zezakenik.

Irichi ziran estaziyo batera. ¡Ango jendiak! ¡Ango ojubak! ¡Zer zan ura!


Gure gazteak jarri ziran ikurrin eder baten ondotik, baita Diyo-re



DONOSTIKO

ORFEOYA-REN

SARRERA



ROYAN

KASINOA

eman zizkaten pardel eta trastiakin galtzarbe eta bizkarrak beterik, eta an joan ziran kaleik kale eche eder bateraño. Esan ziotenez Kasino zuben izena eta aberatzen taberna zan.

Eta Diyo chiništuba zegon Donostiya-n arkirzen zala.

Bañan nola, beste aldetik ez ziyon antzik ematen, ala esaten zuben bere modu



—Len ere aitu izan det Donostiya-n urte ba tetik bestera kale osuak oso chandatzen dituztela... baña egun batetik bestera gezurra dirudi. Eta dana chandatuba dago. Ara bañu tokiya ere: ichasoko urak..... bai.

lenagoko antza badu; baita ondarrak ere; eta baita ur erchian dabiltzan umeak ere; baña ondartzza, eche, kale, ezer ez badago lengo antzekorik.

Gazte ayek ez zuten beñere bakarrik lajatzzen, berakin jan, berakin lo, berakin ibilli, eta ez zuben arkitzen betik, erriko emakume bati agur egitera juateko.

Zeladore alako bat billatu zuben, eta galdetu ziyon:

—Adiskidia: jakingo dezu zuk emen, gure erriko Mikela Antoni non izaten dan; zera, gaztia zanian legen bat ere bazuben, baña gero juan egin zizayon; ondo esaguna da bada, tripakiyak maniatzen ere, iñork baño obetuago daki.

Ja; etziyon esan zeladoriak.

—¡To! Ontan lengua bera zioz Donostiya. Lenago ere ez nikan zeladore bat arkitu euskeraz zekiyenik.

Au aditzerakuan gute ayetako batek esan ziyon :

—Bañan zer Donosti eta zer tronpeta.

—¿Ez alda bada au Donostiya?

—Zer izan biardu. ALI da Royan. Onera etorriger aango Orfeoya, eta irabazi degu sariya eta ez gu geyago choratu, ortatik ondo gera lenago ere donostiarrak eta.

Diyo, asi zan orduban marruaz, galduba zegola, zer egin bear zuben....., eskerrak gazte ayek agindu ziyotela berakin etorriko zala eta ez larritzeko.

—¡Zer esango dirate echian! ¡Zer esango det nik!

—Zer esango dezu: ¡Ala ezpanu artzen!

A. DARRA

